



# **KUTXAren estrategia**

# AURREKARIAK

- Kutxak helburu gisa Gipuzkoako Lurralde Historikoaren garapen ekonomikoa eta soziala izango du, eta bere gizarte-jarduera gauzatu eta garatzera, eta bere ondarea, eta, beraz, Kutxak bere finantza-jarduera transferitu zion banku-erakundearen (Kutxabank, aurrerantzean) kapitalean, bai eta beren helburuen garapenean eskuratutako beste batzuetan duen partaidetza behar bezala kudeatzera bideratuko du bere jarduera nagusia.
- 2014-10-24an Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián – Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa Banku Fundazio bihurtu zen eta gaur egun Kutxabank SAren % 32aren jabea da.

# JARDUN-EREMUAK

- Kutxa Banku Fundazioaren gizarte-jarduera, Kutxa Fundazioarekin lankidetzan, modu orokorrean baina ez eksklusiboan honako eremu hauetara orientatuta dago: gizarte-laguntza eta gizarteratzea, sanitatea, dibertsitate funtzionalaren eta desgaitasunaren arreta, hezkuntza, euskararen eta hizkuntza-bizikidetzaren garapena, kultura, kirolaren eta haren balioen sustapena, lankidetzak, ikerketa zientifikoa, berrikuntza eta garapen teknologikoa, ingurumena eta jasangarritasuna, gazteen eta bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboaren laneratzea, eta abar.
- Eta, oro har, gizarte-balioen eta garapen pertsonal eta kolektiboaren sustapena, eta aldi berean Gipuzkoaren ekonomia, gizarte eta ingurumen arloko garapena bere mendeko erakundearen egituraren bitartez.
- Kutxaren xede eta eginkizunarekin bat etorri behar dute.

# JARDUN-EREMUAK

- Garapen ekonomikoaren eremuan, Fundazioaren ustez Gipuzkoako Lurralde Historikorako balio estrategikoa duten konpainietan parte hartzea bultzatuko da, eta horrek, beste hainbat gairen artean, ondarearen dibertsifikazio graduala ahalbidetuko du, bere diru-sarrereren jasangarritasuna bermatzeko.
- Inbertsioak errenta finkoan, aldakorrean eta enpresen kapitalean.
- Zuhurtzia, errentagarritasuna eta likideziari lotutako irizpide tradizional eta estandarizatuekin.
- Enpresetako partaidetzaren kudeaketa, eta bereziki, Kutxabanken duen partaidetzarena.
- Posizio-hartze graduala lurraldeko eta herrialdeko enpresa estrategikoetan.

# ESTRATEGIAREN GAKOAK

- Kutxaren xedeak: Gipuzkoaren garapen ekonomiko eta sozialaren sustapena.
- Kutxaren Eginkizuna, Ikuspegia eta Balioak, garapen-eragile eta proiektuen bultzatzaile izatera bideratuak.
- Eginkizuna: Gipuzkoaren garapen ekonomiko eta sozialaren zati aktibo izatea.
- Ikuspegia: kutxak erreferentziazko erakundea izan behar du Gipuzkoaren garapenean laguntzen duten proiektu ekonomiko nahiz sozialak identifikatu, sustatu, babestu eta eusteko. Azken batean, Gipuzkoako proiektuen eragile izatea.
- Balioak: konfiantza, Gardentasuna, Konpromisoa, Efikazia eta Efizientzia, Kalitatea, Aukera- eta genero-berdintasuna, Garapen Profesionala eta Ingurumen Portaera.
- Lortzen diren emaitza sozial eta ekonomikoen bidez neurtzen den kudeaketa-eredu batekin, eta ez ordea esleitutako baliabideen bolumenaren bidez..
- Plan hau kudeatzen duten pertsonen profilak, profil sozialari profil ekonomiko eta finantzarioa gaineratuz.

# KUTXAREN JARDUERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOAK:

- Indarrean dagoen legeria eta erregulatzailen politikak bete behar ditu.
- Aurrezki Kutxa zaharrak lurraldeko ekonomian betetzen zuen papera mantendu eta hobetu behar du.
- Kutxabank gure herrialdean sustraituta egongo dela bermatu behar du.
- Eraldakuntza horri faseka eta lurraldeko zirkunstantzia ekonomiko, sozial eta politikoen arabera ekin behar dio.

# KUTXAREN GIZARTE-JARDUERARAKO ESTRATEGIA

Helburua da gizarte-jarduerarako eredu autojasangarri bat hartzea, eta bere kudeaketan inbertsio-kontzeptua barnean hartuz.

- Kutxak gizarte-proiektu jasangarritan inbertitzen du.
- Partaidekide den proiektuak gidatzen ditu.
- Gipuzkoarako interesgarriak diren proiektuak sustatzen eta laguntzen ditu.
- Gizarte-arloko boluntario eta militanteen erakunde, elkarte eta kolektibotan oinarritzen da.
- Balio pertsonal eta sozialen garapena bultzatzen du.
- Gizartean sortzen diren joerak eta aldaketak aztertuko dira.

# GIZARTE-JARDUERA PROPIOA (1)



## Onkologikoa

- ✓ Tratamendu onkologikoan abangoardian dagoen erakundea.
- ✓ Asistentzia-arreta, teknologia eta ikerketa klinikoa hobetzea.

## Eureka! Zientzia Museoa

- ✓ Zientzia-dibulgazioko zentroa, adin guztietarako egokia.
- ✓ Museo gogo-pizgarria eta partizipatiboa, zientzia pertsonengana hurbildu nahi duena.

## Kutxa Ekogunea

- ✓ Portaera- eta jardun-eredu jasangarriak hedatzea.
- ✓ Herrietan eta eskualdeetan proiektuak sustatzea beste erakunde batzuekin aliantzak eginez, jasangarritasunerako sare handi bat eraikiz



# GIZARTE-JARDUERA PROPIOA (2)



## Tabakalera

- ✓ Erakundeen proiektu estrategikoei laguntzeko eredia.
- ✓ Kultura- eta prestakuntza-bizikidetzarako topalekua.
- ✓ Kultura-garapeneko polo bihurtzea, bere eragina neurtuz.

## Kubo-kutxa aretoa

- ✓ Kultura-erreferentea, mota guztietako arte-adierazpenak azaltzeko lekua, eta artistak, adituak, kritikoak eta publikoa elkartzeko espazioa.
- ✓ Nazioarte mailako erakusketa-proiektuak eta ingurune hurbileko proposamenak konbinatzen ditu.

# GIZARTE-JARDUERA LANKIDETZAN

- Erakunde publikoekin eta agente pribatuekin.
- Helburua: diru-laguntzatik proiektu jasangarrien sustapenera igarotzea.
- Urtero laguntza-deialdiak ezarriz.

# PROIEKTUETAN LAGUNTZEKO IRIZPIDEAK

- Kutxa laguntzaile, ez ordea kudeaketaren arduradun.
- Kutxaren xede eta balioekin bat datozen elkarteak.
- Lider erreferenteak eta boluntario konprometituak dituzten elkarteak.
- “Euri fina”, ahalik eta elkarte kopururik handienera iristen saiatzea, Kutxaren ekarpen ekonomikoa elkarte horien aurrekontuaren % esanguratsua izan dadin saihestuz.
- Elkarteen artean bikoiztasunak eta lehia saihestea.
- Ekarpen ekonomikoak batez ere urtebeterako edo bi urterako.
- Jarduera-txostenak eta kontuak aurkezten dituzten elkarteen proiektu jasangarriak.

